

Gaia: 03/2025

**(...)KO FUTBOL KLUBEAN HAUR KATEGORIATIK AURRERAKO PRAKTIKA
DISKRIMINATZAILEEI BURUZKO EBAZPENA**

I.- KONTSULTA

1. 2025eko maiatzaren 3an, salaketa anonimoaren aplikazioaren bidez, informazioa eskatu zen 2024an aurkeztutako kexa bati buruz, argudiatuz erantzunik ez zela jaso. Salatzailearekin argitu zen zegokion erantzuna bidali zitzaiola, baina salaketa-plataforma aldatzean, bere garaian ez bazen sartu erantzuna ikustera jada ezin zuela, baina berriro bidali zitzaion. Hala ere, (...)ko Futbol Klubean izan zitezkeen diskriminazio-jardunbideei buruzko salaketa errepikatu zuen, eta Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren ondorioak eta jarduketak ezagutzea eskatu zuen.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarrenergiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1- Gai honetan, (...)ko Futbol Klubaren barruan balizko diskriminazio-jarduerak salatzen dira, denboraldi desberdinetan egindako jarduketak batzuk zehazten dira, eta Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Sailak balizko irregulartasunak dauden (edo ez) kontrolatzeko egin dituen jarduketak ezagutzeko eskatzen da.

Kexa hirugarren bati aurkeztu zitzaionez, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzko maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz, maiatzaren 14an jasotako kexa helarazi zitzaientzen Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuko (aurrerantzean, Departamentua) arduradunei, informazioa emateko eta dagozkion gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, galdera batzuk egin zitzaizkien, EEB honek beharrezkotzat jo zituenak, gaia ebatzi ahal izateko. Ildo horretan, Zerbitzuak idazki bat bidali zuen ekainaren 9an, bere kontsiderazioekin.

Gogoeta horiek zuzenean interesdunari bidali zitzaizkion, EEB honek uste baitzuen gaia bere eskumenetik kanpo geratzen zela eta, beraz, ez zuela aztertu behar eta, ondorioz, ez zuen ebazpenik eman behar. Hori dela eta, ekainaren 12an, interesdunak beste idazki bat bidali zuen alegazio berriei, eta EEB honek ebazpen hau ematen du alegazio horiei erantzuteko.

2.- Salatzailak gai horri buruz jasotako 3 idazkietan (2024ko irailaren 27ko, 2025eko maiatzaren 14ko eta 2025eko ekainaren 12ko idazkiak), (...)ko Futbol Klubaren barruko balizko diskriminazio-jardunbideak salatzen dira. Adierazten da 2024-2025 denboraldian taldekideak taldetik kanpo utzi direla, guztiontzako lekuri ez zegoela argudiatuta, baina aurreko ikasturteetan jokalaria berriak sartzen zirela denboraldiaren erdian, normalean kalitate jakin bateko jokalaria, eta galdetzen da ea praktika horiek bat datozen Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 02/2023 Legean ezarritakoarekin. Lege horren 23. eta 24.

artikuluetan berdintasunaren eta gizarteratzearen printzipioak aipatzen diraa jarduera fisikorako eta kirolerako funtsezko irizpide gisa.

3.- Eskaera horri erantzunez, Departamentuak txosten bat egin zuen, egindako jarduerak, egoeraren azterketa eta ateratako ondorioak zehazteko. Txosten horretan jasotzen zenez, eskuragarri zegoen informazioaren eta dagozkion eskumenen arabera – eskola-kiroleko kategorietara mugatuta, zehazki haur-kategoriara arte –, ez zen irregulartasunik identifikatu adingabeek klubeko kirol-jardueretan parte hartzeari edo tratu desberdina edo diskriminatzailea izatearen zantzuei dagokienez. Departamentuak adierazi zuen, bere esku-hartze eremuaren barruan, klubaren jarduera berdintasunaren eta kirolerako sarbide unibertsalaren printzipioen arabera garatzen ari zela. Ondorio horiek jaso ondoren, EEBk salatzailearekin partekatu zituen, gardentasunez eta haren kezkari erantzunez. Hala ere, pertsona horrek kasua sakonago berrikusteko eskatu zuen, eta berriro adierazi zuen uste zuela behar bezala ebaluatu gabeko diskriminazio-praktikak egon zitezkeela, eta uste zuela haur batzuk baztertu egin zirela, nahiz eta plaza libreak egon, eta, beraz, gaiari buruzko jarraipena egiteko eskatzen zuen, baztertzeko arrazoiak zein diren jakiteko, jokalaria bakoitzaren banakako azterketa egiteko, urte batetik bestera zenbatek jarraitzen duten eta zer gertatzen den hori egiten ez dutenekin jakiteko, hori guztia haur guztien aukera-berdintasuna bermatzeko beren garapen pertsonalaren eta kirol-garapenaren funtsezko etapa batean.

4.- EEB honek aspaldi izan zuen gai horren berri, deskribatutako egoerarekin lotutako lehen kexa jaso zuenean. Une hartan, aurretiazko azterketa egin ondoren, EEBk erabaki zuen salatutako gertakariak bere jarduera-eremua gainditzeko zutela; izan ere, futbol-klub jakin baten erabakiak eta barne-praktikak zalantzan jartzen zituzten, hau da, zuzenean EZSren printzipio eta arauen mende ez dagoen erakunde pribatu baten funtzionamendu autonomia. Hala ere, balizko jardunbide txarren prebentzioarekin eta foru Aldundia inplikaturik egon daitekeen egoera sentikorren jarraipenarekin duen konpromisoari jarraikiz, EEB honek egokitzat jo zuen gaia kirolaren arloan eskumena duen Departamentuari helaraztea, bere eginkizunen barruan kasuaren jarraipena egin ahal izan zezan. Helburua zen bermatzea, foru Aldundiak zuzeneko edo zeharkako erantzukizuna izan zezakeen jarduketa irregularren bat hautemanez gero, informazio nahikoa eta eguneratua izango zela behar bezalako arduraz esku hartzeko.

Garrantzitsua da kontuan hartzea EEB honen jarduketaren irismen objektiboa eta subjektiboa mugatuta dagoela, gai zehatz horri dagokionez, gai horretan eskumena duten foru-aldundiko langileek jarduna EZSk ezarritako balio, printzipio eta jokabide-eta jarduketa-arauen arabera izan den ala ez baloratzeko. Esparru horretan, gure

lana da langile horiek behar bezala jardun duten egiaztatzea, eta, horrela, bermatzea foru Aldundiak emandako zerbitzu publikoa zuzena izan dela eta dagozkion betebeharrak etiko eta instituzionalen arabera.

Departamentu eskudunak bidalitako dokumentazioa aztertuta, ondorioztatzen da foru Aldundiak eskumenak esleituta dituen eremuaren barruan – hau da, eskola-kirolaren eremuan, haur-kategoriara arte – ez dela irregulartasunik hauteman futbolean oinarritaldeetan, hala nola kirol-eskoletan, parte hartzeko interesa duten adingabeen parte-hartzea gainbegiratzeari edo kontrolatzeari dagokionez. Ezerk ez du pentsarazten jarduerarako sarbide ekitatiboa bermatzen ez denik, inklusioaren eta kirolaren sustapenaren printzipioekin bat etorritik.

Hala ere, adin- edo kategoria-maila hori gainditu ondoren, eta, beraz, foru Aldundiaren eskumen-esparrutik kanpo, kirol-klubek berek hartzen dute beren gain beren taldeak beren kirol-irizpide, -helburu eta -politiken arabera antolatzeke eta kudeatzeko erantzukizuna. Testuinguru horretan, klubek hautaketa-irizpide jakin batzuk aplikatu ohi dituzte, eta, ondorioz, parte-hartzaileen arteko diskriminazio legitimoa eragin dezakete, baldin eta kirol-arrazoietan eta errendimendu-arrazoietan oinarrituta badago, eta gehiago dago bideratuta lehiaketara, kirola modu inklusiboan egitera baino. Ikuspegi-desberdintasun horrek xedearen aldaketari erantzuten dio: kirola eskubide eta prestakuntza-jarduera gisa sustatzean oinarritutako eredu batetik – eskola-etapari eta erantzukizun publikoari dagokiena – bikaintasun lehiakorrean oinarritutako eredu batera igarotzen da, klubek modu autonomoan zuzendu eta kudeatua.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2025eko irailaren 2an

EBAZPENA

Bakarra.- Salaketa artxibatzea, ez delako inolako ez-betetzerik antzeman Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritakoaren inguruan.

Irune Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria